

# **ERRENTERRIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA**

## **SARRERA**

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Errenteriako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

## **XEDEA**

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Errenteriako Hiri Antolaketako Plan Orokorra (2004ko otsailaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua)**
- **Errenteriako, Oiartzungo eta Lezoko udalek onartutako mugaketa eta mugarriztatze akordioak.**

## **ALDAKETAK**

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

**1.- Hiri-lurraren eta 802 eta 804 zona katastralen mugapenak aldatzen dira, 851 eta 853 zona katastralak deusestatzen dira, eta 412 eta 423 zona katastral berriak sortzen dira.**

**2.- Sortutako zonak honako balioak izango ditu:**

<b>Zona</b>	<b>Hirigintz. klasif</b>	<b>(EK)Eraik Kos. (BEE)</b>	<b>Balio Erag. (MP)</b>	<b>Apark Moduloa.</b>
412	HIRITARRA	510,86 €	500,86 €	13.823,28 €
423	HIRITARRA	510,86 €	390,66 €	13.823,28 €

**3.- 412 eta 423 etxebizitzarako zonetan dauden kaleek edo kale tarteeek X azpizona izango dute.**

### **I. ERANSKINA**

**Hirilurraren mugatze planoak.**

### **II. ERANSKINA**

**Zona katastralen planoak.**